

f) *-Tasun eta -keria atzizkiak*

Ambrosio Zatarain jaunaren txostena, “-tasun” eta “-keria” atzizkien erabilkera jatorrari buruz. Hontaz bildu dituen agiriak adierazten ditu honako eritzi hauetara heltzeko: 1.º) *-tasun* izateari dagokiola: apaiztasuna = apaiz izatea; gaiztotasuna = gaizto izatea; 2.º) *-Keri(a)* egiteari dagokiola: apaizkeri bat egin du; gaiztakeri asko egin du. Beraz, inola ere ontzat eman ezinezkoa, “gaiztotasun bat egin du” eta “gaiztakeria handiko gizona da” esatea da.

Ohi den otoitzarekin bukatu da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-VI-27

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko ekainaren 27an, arratsaldeko bostak laurden gutiagotan, bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, X. Diharce, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, E. Larre, J. M. Lojendio, eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; Julene Azpeitia, Madeleine Jaureguiberry, Tene Mujika euskaltzain ohorezko andereak; L. Akesolo, B. Arregi, P. Arregi, J. Berrojalbiz, N. Etxaniz, J. Fz. Setien, J. Garmendia, S. Garmendia, I. Goikoetxea, X. Kintana, J. M. Lekuona, J. L. Lizundia, J. Zaitegi, M. Zarate, A. Zatarain eta J. M. Zumalabe jaun-andere laguntzaileak, J. San Martin idazkari dela.

J. M. Barandiaran, L. Dassance, J. L. Davant, E. Erkiaga, Aita P. Iraizozkoa, M. Lekuona, P. Larzabal, L. Mitxelena, A. Zavala jaun euskaltzainak eta M.^a Milagros Bidegain eta Karmele Esnal andereño laguntzaileak ezin etorria adiarazi dute.

Gaurko Batzar hau, hiru andere ohorezkoen omenez denez, irekia da eta ehunen bat lagun bildu dira, euskaltzainditik kanporakoak, hauen arteko Olaizola diputatu jauna eta Aperribai Debako alkate jauna.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Euskaltzainburuak Gabriel Aresti laguntzailearen hil berria eman du. Eta, baita ere, aditzera ematen du, Emakumeen Nazioarteko Urte hau ospatzeko, adineko emakume euskal idazle edo euskaltzaleei omenezko zerbeit antolatzea, G. Aresti zenaren proposamendua izan zela urtarrileko batzarran. Adiskide hilaren alde dolumina agertzen da.

Euskaltzainburuaren agurrezko hitzak, Emakumearen Nazioarteko Urtea dela-ta, "Emakumea euskal literaturan" gaia ikutuaz. Emakume idazleak ez-ekik, gizonzko idazleak bultzatu dituzten emakumeak eta sukaldeetan hurrei euskara irakasten dien etxekoandreak ere gogoan ditu. Azkenik, gaur omenaldiz batzar ideki hau eskaintzen zaien hiru emakumezkoak eta euskararen arloan hauek egin duten lan erdugarria aurkezten ditu.

Ondorean Julene Azpeitia euskaltzain ohorezkoa mintzo da bere maistratzako lehen pausoak adiaraziaz, eta euskal idazle zaletasunaren hasierak kontatuaz.

Madaleine Jauregiberry euskaltzain ohorezkoaren txostena. Gaztaroan bere buruari egiten zizkion galderaz, ia xubertarrez herri euskaraz idazteko modurik zen, Lucien Bonaparte printzea, Intxausperen lanak eta abar, bihozkadaz mugitu zela euskararen alde.

Tene Mujikak euskaltzain ohorezkoak, bere txostenean, bere euskal idazletasunaren lehen bideak nola hartu zituen, eta bide horiek markatu zizkion Don Lorenzo Boneta apaiz jaunaren oroimena dakar, eta bere langintzan izan dituen pozak eta penak agertzen ditu, batez ere pozak euskara maitagarria zerbitu ahal izateaz.

Ondorean, euskaltzainburuak, hiru andereei ohorezko izendapenezko diplomak ematen dizkie.

Bi haur neskamutitoak Debako ikastolen izenean hiru andereei lore sortak eskaintzen dizkie.

Euskaltzainburu-ordezko den Haritschelhar jaunak hitz bazuk egin ditu, Aresti zenaren oroitzapenez, eta euskal emakumezkoen ohorez.

Idazkariak, hartu diren agurrezko gutunak eta telegramak irakurtzen ditu. Eta ondorean goizean euskaltzain osoak egin duten bilkuran izendatu dituzten laguntzaile berrien izenak ematen ditu: Gexan Alfaro (Lantziri), Ramuntxo Cam-

blong, Manex Goyhenetche, Hendrike Knörr, Jose Anjel Irigaray, Patxi Zabaleta, Fermin Ijurko, Xabier Mendiguren, Juan Jose Zearreta, Jose Antonio Retolaza, Imanol Laspiur, Jose Antonio Letamendia, Juan Garmendia Larrañaga, Jose Maria Aranalde, Juan Maria Torrealday, Mikel Atxaga, Jose Maria Iriondo eta Jabier Aranburu jaunak.

Idazkari-ordezkoak, Yose Paulo Ulibarriren omenez abuztuaren 17an Okendon (Araba) egingo den ospatzearen programa irakurri du.

Azkenik, batzarkideen artean elkarriketarako aukera eman da eta Teri Ibarrola andereak hiru herri ipui kontatu ditu, Murelagako euskara jatorrean.

Honenbestez bukatutzat eman da batzarra.

Euskaltzainburua
LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JUAN SAN MARTIN

1975-VII-30

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1975eko uztailaren 30ean, arratsaldeko laurretan bildu dira: L. Villasante buru, J. Haritschelhar buruordezko, A. Arrue, X. Diharce, E. Erkiaga, A. Irigaray, A. Irigoyen, P. Lafitte, L. Mitxeleña, eta J. M. Satrustegi euskaltzain jaunak; P. Altuna, I. Berriatua, X. Gereño, J. Intxausti, X. Kintana, J. L. Lizundia, J. Oregi, I. Sarasola, J. Zaitegi, M. Zarate, A. Zatarain eta J. M. Zumalabe euskaltzain laguntzaile jaunak, J. San Martin idazkari dela.

Larre, Larzabal, Dassance, Davant eta Zavala jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarra.

Maiatzeko eta ekaineko batzar agiriak onhartu dira.

Euskaltzainburu jaunak Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País elkarteko buruetariko zen Alvaro del Valle Lersundi jaunaren hil berria adiarazi du. Bere gogoia gure alde eta euskararen alde hainbeste aldiz agertu zuenez eta